

ARRUE ikerketa-lana



Nolakoa da haurren eta gazteen hizkuntza-erabilera eskolan?

Zeren arabera aldatzen da?

NONDIK DATOR?

- Urtetan zehar ikasleen euskarazko ezagutza-maila asko neurtu da, baina erabilera...
- Aztergai honekin dugun interesak bultzatuta, Jaurlearitzako Hezkuntza Sailak eta SL Klusterrak Arrue ikerketa sortu genuen.

ZER AZTERTZEN DA?

- Ikasleen hizkuntza-erabilera neurtzen da, eta ikasleen era askotako ezaugarriak (aldagaiak).
- Aldagai horien azterketak ez du euskarazko erabilera *zergatik?* gertatzen den azaltzen, baina erantzunak eraikitzen laguntzen du.

NOLA AZTERTZEN DA?


- Ikasleen erabilera neurtzen da alde batetik: jolaslekuan eta gelan. Bestetik, ikasle hauen ezaugarrien datuak jasotzen dira: ikaslearen ezagutza-maila, familiari buruzkoak, ikastetxekoak, herri edo auzokoak...
- Erabileraren eta ezaugarri guzti hauen arteko loturan sakontzen da, azterketa estatistikoaren bidez.

ORAIN ARTEKO IBILBIDEA


- 2004-2005: Barnetegietan egin ziren lehen neurketak
- 2005-2006: Lehen datu bilketa zabala ikastetxeetan: LMH6ko 80 bat talde, 50 bat ikastetxetakoak (1.300 ikasle)
- 2006-2007: Jasotako datuen azterketa estatistikoa (kuantitatiboa)
Interes bereziko 7 talderen Kasu Azterketa (kualitatiboa)
- 2007-2008: 2. datu bilketa zabala ikastetxeetan, LMH6ko ikasleen artean.
50 ikastetxe inguru (1.500 ikasle)
- 2008-2009: Datu sinplifikatuen bilketa eta azterketa (Gela-argazkia) lau ikasmaitan: LMH2, LMH6, DBH1 eta DBH4
Gela barruko dinamiken azterketa: irakaslearen metodologia, taldearen dinamika
Metodologia egokitzapenak eta probak DBH4n

EREDU TEORIKOA

Bildutako informazioa Eredutegiko baten laguntzaz aztertzen da. Bertan, 3 mailatan bereizten da ikaslearen hizkuntza-errealitatea:



1.- MAILA INDIBIDUALA: IKASLEAREN EZAUGARRIAK
1.- Lehen hizkuntza
2.- Motibazioa
3.- Erraztasun erlatiboa
4.- Idatzizko gaitasuna
5.- Hitzun aktiboa euskaraz
6.- Gela barruko erabilera




2.- MAILA MIKROA: HARREMAN SAREAK	
FAMILIA	7.- Etxeko hizkuntza
	8.- Gurasoen gaitasuna
LAGUNAR TEA	9.- Herriko lagunen ezagutza
	10.- Herriko lagunen erabilera
IKASTETXEA	11.- Taldearen jolaslekuko erabilera
	12.- Taldearen gela barruko erabilera
	13.- Ikastetxeko giro euskalduna
	14.- Plangintzak: ahozotasuna
AISI ALDI	15.- Aisialdia euskaraz

3- MAILA MAKROA: GIZARTEAREN EGITURA
16.- Ikaslearen herriaren euskalduntasuna
17.- Hizkuntza-eredua eta irakasleria
18.- Gurasoen jatorria
19.- Bizindar subjektiboa I: familia
20.- Bizindar subjektiboa II: gizartea
21.- Miresten dituen pertsonaiak
22.- Generoa

Ondorioak

1.- Ikaslearen *jolaslekuko erabilera* lotuago dago ikaslearen ingurune hurbileko ezaugarriari (*maila MIKROA*) maila *INDIBIDUAL* eta *MAKRO*koei baino.



(*) Datu hauek Arrue ikerketan borondatez parte hartu duten ikastetxeen analisiari dagozkie, ez diseinatutako lagin orekatu bati. Kopuru hauek, beraz, ez dira adierazgarriak EAEko ikastetxeen osotasunerako.

Ondorioak

2.- Maila indibidualean *Erraztasun erlatiboa*, maila mikroan *taldearen jolaslekuko erabilera* eta maila makroan *Herriaren euskalduntasuna* dira ikaslearen ikaslearen *jolaslekuko erabilera*-rekin lotuenak daudenak.

M. INDIBIDUALA	M. MIKROSOZIALA	M. MAKROSOZIALA
Erraztasun erlatiboa	Taldearen jolaslekuko erabilera	Herriaren euskalduntasuna
Lehen hizkuntza	Herriko lagunen erabilera	Hizkuntza eredu eta irakasleria
Idatzizko gaitasuna	Aisialdia euskaraz	Bizindar subjektiboa I: familia
Gela barruko erabilera	Etxeko hizkuntza	Bizindar subjektiboa II: gizartea
Hiztun aktiboa euskaraz	Gurasoen gaitasuna	Miresten dituen pertsonaiak
Motibazioa	Ikastetxeko giro euskalduna	Generoa
	Taldearen gela barruko erabilera	
	Herriko lagunen ezagutza	
	Plangintzak: ahozkotasuna	

Ondorioak

3.- Ikaslearen ezaugarri pertsonalak, edo familiakoak dena delakoa izanik ere, *taldearen erabilera* beste ezaugarri guztiei nagusitzen zaie.

Lotura estatistiko sendoena berak du, neurtutako beste aldagai guztien gaineratik. Horrek, besteak beste, hizkuntza-erabilera “talde-fenomeno” gisa aztertzearen egokitasuna ekartzen du gogora.

Ondorioak

5.- Ikasleen arteko erabilera desberdina da *gela barruan* eta *jolaslekuan*, batez ere ikasleen LH euskara ez denean.

	Lehen hizkuntza EUSKARA	Lehen hizkuntza GAZTELANIA
Erabilera <i>gela barruan</i>	% 89,5 (*)	% 73,0
Erabilera <i>jolaslekuan</i>	%84,7	%34,5

(*) Datu hauek Arrue ikerketan borondatez parte hartu duten ikastetxeen analisiari dagozkie, ez diseinatutako lagin orekatu bati. Kopuru hauek, beraz, ez dira adierazgarriak EAEko ikastetxeen osotasunerako.

Ondorioak

6.- Ikastetxearen lana eta giroa (“izaera”), neurri batean, familia eta herriaren baldintzapean soziolinguistiko orokorrak gainditzeko gai da ikasleen eskola giroko erabileran.

- Ikastetxe batzuek beren ezaugarrietan “ohikoak” diren erabilera mailak gainditzen dituzte.
- Ikastetxean *erabilera lantzea* edo *ahozkotasuna lantzea* bezalako aldagaiek lotura dute ikaslearen *jolaslekuko erabilerarekin*, lotura hau beste aldagai batzuetan baino ahulagoa den arren.

Ondorioak

7.- Neskek mutilek baino gehiago egiten dute euskaraz eskola-giroan (LMH6, 11-12 urte).

- Bai *gela barruan* eta bai *jolaslekuan* batez beste neskek mutilek baino 6 (*) puntu erabilera altuagoa dute.
- Portaera ezberdin horren funtsa kulturala izan daitekeelakoan gaude, beste ikerketa batzuetan ere adierazi den moduan. J.M. Hernandez-ek adibidez, horrela dio: “... *sexuen arteko aldeak ulertzerakoan, sexu bakoitzari sozialki egokitutako arauak, rolak, aurreikuspenak... kontuan hartu behar ditugu*”.

(*) Datu hauek Arrue ikerketan borondatez parte hartu duten ikastetxeen analisiari dagozkie, ez diseinatutako lagin orekatu bati. Kopuru hauek, beraz, ez dira adierazgarriak EAEko ikastetxeen osotasunerako.

Ondorioak

8.- Ikasleek hizkuntzarekiko dituzten *irudikapenek* badute lotura *jolaslekuko erabilerarekin*, baina ahulagoa da beste aldagai batzuk dutena baino; adibidez: *Lehen hizkuntza, erabilera herriko lagunekin...*

- Beste era batera esanda, jolaslekuan oso hizkuntza-erabilera ezberdinak dituzten ikasleek, ez dituzte, oro har, hain hizkuntza-irudikapen ezberdinak.

